# Xedapen Orokorrak

**JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA OSASUN ETA KONTSUMO SAILA**

**2078**

67/2011 DEKRETUA, martxoaren 29koa, funtzionarioak eta lan-kontratudun langileak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutupeko langile gisa integratzeari buruzkoa.

1997ko ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarenak, hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen du estatutupeko langile gisa integratuko direla Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoetako karrerako funtzionario izan eta Ente Publikoan zerbitzua ematen dutenak, edo beste administrazio publiko batzuetatik transferitutakoak, bai eta lan-kontratudun langile finkoak ere. Integrazio hori borondatezkoa da, eta hala zehaztu da.

2003ko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen, Osasun zerbitzuen estatutupeko langileen esparru-estatutua onesten duenaren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, administrazio sanitario publikoek, langileen arteko harremanak homogeneizatzeko, karrerako funtzionario gisa edo lan-kontratudun langile finko gisa zentro, instituzio edo zerbitzuetan lan egiten dutenak zuzenean estatutupeko langile gisa integratzeko prozedurak ezarri ahal izango dituzte, betiere borondatezko izaerarekin, betiere kategoria baliokidean eta titulu baliokidea badute.

Xedapen horrek ere ezartzen du, aldi bateko lan-kontratudun langileak eta bitarteko funtzionarioak zuzenean integratzeko prozedurak ere ezar daitezkeela, aldi baterako estatutupeko langile bihurtzeko, dagokion kategoria, titulu eta modalitatean.

Ikusten denez, bi lege-aginduek helburu bera dute: oro har, osasun-zerbitzu guztietako eta, bereziki, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile guztiek enplegu-erlazio bakarra izatea; horrek giza baliabideak hobe eta arrazoizko eran kudeatzea ahalbidetuko du, eta hori, halaber, langileen onerako izango da, dauden enplegu-erlazio guztiak bateratu egingo direlako, eta modu horretan, profesional guztiek ente publikoan izan daitezkeen lanbide-garapen guztiak eskuratzeko modua izango dutelako.

Baina, esan denez, integrazioak borondatezko izaera du; horrenbestez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak antolatuko du, dekretu honetan ezarritako prozedura betez, eragindako langileen integrazio-prozesua. Horrek ez

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO**

**2078**

DECRETO 67/2011, de 29 de marzo, sobre integración de personal funcionario y laboral en la condición de personal estatutario de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

La Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, establece en su Disposición Adicional Tercera la integración en la condición de personal estatutario de quienes presten sus servicios en el Ente Público como funcionario de carrera perteneciente a los cuerpos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi o transferido de otras Administraciones publicas, así como al personal laboral fijo. Esta integración tiene, y así se especifica, carácter voluntario.

La Disposición Adicional Quinta de la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto-Marco del personal estatutario de los Servicios de Salud, permite a las Administraciones sanitarias públicas, al objeto de homogeneizar las relaciones del personal, establecer los procedimientos para la integración directa, con carácter voluntario, en la condición de personal estatutario, en la categoría y titulación equivalente, de quienes presten servicio en centros, instituciones o servicios con la condición de funcionario de carrera o en virtud de contrato laboral fijo.

Esta Disposición señala también que se podrán establecer procedimientos para la integración directa del personal laboral temporal y funcionario interino en la condición de personal estatutario temporal, en la categoría, titulación y modalidad que corresponda.

Como vemos, ambos preceptos legales tienen la misma finalidad, la existencia de una única relación de empleo para todos los trabajadores de los Servicios de Salud en general y de Osakidetza-Servicio vasco de salud en particular, permitiendo de esta forma una mejor y más racional gestión de los recursos humanos que redundará en una mejora del propio personal, al unificar todas las relaciones de empleo existentes permitiendo de esta forma, el acceso de los profesionales a todo el desarrollo profesional que pueda darse dentro del Ente Público.

Ahora bien, como se ha señalado, esta integración es de carácter voluntario, por lo que la propia Dirección General del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud articulará, en base al procedimiento que en este Decreto se establece, el proceso de inte-

du ekarriko, inola ere, langile horien lan-baldintzen eta ordainsarien murrizketarik.

Aldi bateko lan-kontratudun langileen eta bitarteko funtzionarioen kasuan, Euskadiko Antolamendu Sanitarioko Legeak nahiz Esparru-estatutuak ezartzen dute dagokien kategoria, titulu eta modalitatean integratuko direla. Integrazio hori ofizioz egingo da, aldi baterako estatutu-erlazioa betez.

Era berean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legeak, apirilaren 12koak, xedatutakoa bete dadin zenbait bilera egin ditu osasunarloko sektore-mahaiak, dekretu honek eragingo dien langileen integrazio-prozedura negoziatzeko.

Hala, eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeak, ekainaren 26koak, hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako lege-gaikuntzaren babesean, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren eta Osasun eta Kontsumo sailburuaren proposamenez, nahitaezko txostenak eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak esandakoa kontuan hartuta, eta Gobernu-kontseiluak 2011ko martxoaren 29an egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT:

***1. artikulua.***– Helburua.

Dekretu honen helburua da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko karrerako funtzionarioak eta lan-kontratudun langile finkoak estatutupeko langile finko gisa integratzeko prozedura zehaztea.

***2. artikulua***.– Eremua.

Berezko eremua Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren zerbitzu-erakundeek eratzen eta mugatzen dute, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-administrazioaren barnean.

***3. artikulua.***– Integrazio-eskubidea.

1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Autonomoa desagertu zen unean hari atxikirik zeuden karrerako funtzionarioek eta lan-kontratudun langile finkoek izango dute integratzeko aukera, baldin eta gaur egun Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoari atxikita badaude, zerbitzu aktiboan egon edo lanpostua gordeta badute, indarrean dagoen legerian ezarritako arrazoiren batengatik.

2.– Era berean, eszedentzian dauden langileek ere eskatu ahal izango dute integrazioa, baldin eta horien egoera arautzen duen legerian aurreikusitako zerbitzu aktibora itzultzea eskatzeko epea igaro ez bada, eta,

gración del personal afectado, sin que en ningún momento esto suponga una merma en sus condiciones laborales y retributivas.

Con respecto al personal laboral temporal y funcionario interino tanto la Ley de Ordenación Sanitaria de Euskadi como el Estatuto Marco, establecen su integración en la categoría, titulación y modalidad que corresponda, integración ésta que le será adecuada de oficio, conforme a la relación estatutaria de carácter temporal.

Asimismo en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, se han celebrado diversas reuniones en la Mesa Sectorial de Sanidad con objeto de proceder a la negociación del procedimiento de integración del personal al que afecta el presente Decreto.

De esta forma y al amparo de la habilitación legal establecida en la Disposición Adicional Tercera de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Justicia y Administración Pública y del Consejero de Sanidad y Consumo, vistos los informes preceptivos, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 29 de marzo de 2011,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

El objeto del presente Decreto es la determinación del procedimiento para la integración de los funcionarios de carrera y personal laboral fijo del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, en la condición de personal estatutario fijo.

***Artículo 2.***– Ámbito.

El ámbito propio dentro de la Administración sanitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco está constituido y delimitado por las Organizaciones de Servicios del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

***Artículo 3.***– Derecho a la integración.

1.– Podrán optar a la integración los funcionarios de carrera y personal laboral fijo que se encontraban adscritos al Organismo Autónomo Osakidetza-Servicio vasco de salud al tiempo de su extinción y que permanezcan actualmente adscritos al Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, en situación de servicio activo o con reserva de puesto de trabajo por alguna de las causas establecidas en la legislación vigente.

2.– Igualmente podrá solicitar la integración el personal en situación de excedencia, siempre que no hubiera transcurrido el plazo previsto en la legislación reguladora de su situación para solicitar el rein-

betiere, eszedentzia aitortu aurretik gaur egun Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren mendeko diren zerbitzu-erakundetan ematen ari baziren zerbitzua. Suposizio horietan eskatzailea eszedentzia egoera horretan bertan dagoela integratuko da, eta zerbitzu aktibora itzuli, itzultzea tokatzen den unean aplikagarri den estatutu-arautegiak ezarritakoa betez itzuliko da. Eszedentzian dauden langileek zerbitzu aktibora itzultzea eskatzen duten unean ere izango dute integratzeko aukera. Kasu horretan, zerbitzu aktibora itzultzeko ebazpenean erabakiko da integratzea, eta eraginkortasun-data zein duen ere adieraziko da.

3.– Estatutu-araubidean borondatezko integrazioa burutu nahi ez duten karrerako funtzionarioak zerbitzu aktiboan egongo dira beren jatorrizko kidegoan, 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarenaren eta hura garatzen duten arauen araubidea oso-osorik aplikatzeari kalterik egin gabe.

4.– Integrazioa hautatu ez duten lan-kontratudun langileek aurretik zuten egoeran jarraituko dute, lan-araubideari atxikitako eskubide eta betebeharrak edukiz, aplikagarri izan eta indarrean duden lege-xedapenen arabera.

***4. artikulua.***– Integrazio-betekizunak.

1.– Orokorrean, hauek dira borondatez estatutupeko langile finko gisa integratzeko bete beharrekoak:

a) Lan-kontradun langile finkoa edo karrerako funtzionarioa izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskaletakoa, edo beste administrazio publiko batzuetatik transferitua.

b) Integratu nahi den kategoriaren baliokide den kidego edo kategoriakoa izatea. Lan-kontratudun langile finkoak estatutupeko araubide juridikoan integra daitezke, duten titulazioaren, lanbide-kategoriaren, lanbidearen edo ogibidearen arabera, hau da, beren lan-kontratuan onartutakoaren arabera, baldin eta zerbitzua ematen ari badira edo lanpostua gordeta badute, indarrean dagoen legerian ezarritako arrazoiren batengatik.

c) Kasu bakoitzean aplikagarri den legeria orokorrak eta dena delako lanbidean jardutea arautzen duen legeria espezifikoak eskatutako tituluaren jabe izatea, kasu honetan izan ezik: Esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak zazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baimena edo lege-gaikuntza eta arauzkoa izatea.

Dena den, administrazioan sartzeko, gaur egun indarrean dagoen estatutu izaerako arautegian ezarritako titulu akademikoa eskatu ez, eta baimenik edo lege-gaikuntzarik ez duten kidego, eskala edo kategoria jakinetako karrerako funtzionarioek edo lan-kontratudun langile finkoek ere integratzeko au-

greso al servicio activo y siempre y cuando con anterioridad a la declaración de excedencia se encontrara prestando servicios en las organizaciones de servicios actualmente dependientes de Osakidetza-Servicio vasco de salud. En estos supuestos el solicitante será integrado, manteniéndose en la misma situación de excedencia en la que se halle y su reingreso se efectuará de acuerdo con lo establecido en la normativa estatutaria de aplicación en el momento en que ésta se produzca. El personal excedente también podrá formular opción de integración en el momento en que solicite el reingreso al servicio activo, en cuyo caso la resolución de reingreso acordará la integración indicando la fecha de efectividad de la misma.

3.– Los funcionarios de carrera que no ejercieran la integración voluntaria en el régimen estatutario se mantendrán en servicio activo en su cuerpo de origen, sin perjuicio de que les resulte de aplicación en su integridad el régimen de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi y su normativa de desarrollo.

4.– El personal laboral que no optara por la integración permanecerá en su situación anterior, conservando los derechos y obligaciones inherentes al régimen laboral, de acuerdo con las disposiciones legales vigentes que le resulten de aplicación.

***Artículo 4.***– Requisitos de integración.

1.– Con carácter general, serán requisitos exigibles para poder optar voluntariamente por la integración, como personal estatutario fijo, los siguientes:

a) Ser personal laboral fijo o funcionario de carrera, perteneciente a los cuerpos y escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi o transferido de otras Administraciones públicas.

b) Pertenecer a un cuerpo o categoría equivalente a la de la categoría en la que se pretende la integración. El personal laboral fijo podrá optar a la integración en el régimen jurídico estatutario en función de la titulación, categoría profesional, profesión u oficio que posea, entendiéndose por tal la reconocida en su contrato de trabajo y que se encuentre prestando sus servicios o tenga reserva de puesto, por alguna de las causas establecidas en la legislación vigente.

c) Estar en posesión de la titulación exigida por la legislación general aplicable en cada caso y por la específica que regule el ejercicio de la actividad profesional de que se trate, salvo que se cuente con la autorización o habilitación legal y reglamentaria prevista en la Disposición Adicional Séptima de la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, del Estatuto Marco.

No obstante, el personal funcionario de carrera o laboral fijo perteneciente a un cuerpo, escala o categoría determinada, que para su ingreso no se le exigió una titulación académica requerida actualmente en la normativa vigente de carácter estatutario, y que no cuente con la autorización o habilitación legal,

kera izango dute, duten tituluen araberako sailkapen-taldearen kategorian edo beheragokoan.

d) Estatutupeko langile izateko gainerako betekizunak betetzea.

2.– Eskatutako betekizunak integrazio-deialdian ezarritako eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako bete behar dira.

***5. artikulua.***– Integrazio-prozedura.

1.– Hau da karrerako funtzionarioak eta lankontratu finkoko langileak estatutupeko langile bihurtzeko integrazio-prozedura:

a) Integrazio-prozesua deitzea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez deituko da integrazio-prozesua, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

b) Bideratzea eta amaiera.

Eskabideak jaso ondoren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Giza Baliabideen Zuzendaritzak bideratuko du prozedura. Horretarako, beharrezko bideratze-egintzak egin ondoren, behin-behineko integrazio-proposamena aurkeztuko du ebazpen bidez, eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Era berean, interesdunei entzuteko aldia zabalduko da, ez hamar egun baino gutxiagokoa eta ez hamabost egun baino gehiagokoa ere. Epe horretan, egoki irizten diotenek arrazoibideak eta dokumentazioa aurkeztu ahal izango dituzte. Aurkeztutako guztia Giza Baliabideen Zuzendaritzak aztertu egingo du, eta behin betiko integrazio-proposamena egin. Proposamen hori Ente Publikoko Zuzendaritza Nagusiak onetsi, eta ebazpen bidez, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Ebazpen horrek administrazio-bidea agortzen duenez, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Zuzendaritza Nagusi horri berari, edo zuzenean aurka egin, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

2.– Integrazio-ebazpenean interesduna integratuko den lanbide-taldea eta kategoria jaso behar da, bai eta adskribatuta geratuko den zerbitzu-erakundean esleitutako eginkizunen araberako lanpostua eta integrazioaren eraginkortasun-data ere.

3.– Integrazioa eskatu baina beharrezko baldintzak betetzen ez dituzten langileei ukatu egingo zaie eskaera, eta borondatez ez integratzea hautatu duten haien baldintza beretan utziko dira.

podrá integrarse en una categoría de grupo de clasificación igual o inferior en función de la titulación que ostente.

d) Cumplir los restantes requisitos para ostentar la condición de personal estatutario.

2.– Los requisitos exigidos deberán ostentarse en la fecha en que finalice el plazo de presentación de instancias contemplado en la convocatoria de integración.

***Artículo 5.***– Procedimiento de integración.

1.– El procedimiento de integración de los funcionarios de carrera y del personal laboral fijo en la condición de personal estatutario se efectuará de acuerdo con el siguiente procedimiento:

a) Convocatoria del proceso de integración.

Mediante resolución de la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud se efectuará la convocatoria del proceso de integración, la cual se hará pública a través del Boletín Oficial del País Vasco.

b) Instrucción y finalización.

Una vez recibidas las distintas solicitudes, la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud instruirá el procedimiento. A tal efecto, una vez realizados los actos de instrucción precisos, presentará una propuesta provisional de integración que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco mediante resolución, abriendo en la misma un trámite de audiencia a los interesados en un plazo no inferior a diez días ni superior a quince días durante el que podrán alegar y presentar la documentación que estimen pertinente. Analizado todo ello por la Dirección de Recursos Humanos, ésta elevará una propuesta definitiva de integración que será aprobada por la Dirección General del Ente Público y publicada mediante resolución en el Boletín Oficial del País Vasco. Contra dicha resolución, que agota la vía administrativa, los interesados podrán recurrir potestativamente en reposición ante la misma Dirección General o proceder a su impugnación directa ante la jurisdicción contencioso-administrativa.

2.– La resolución de integración deberá contener el grupo profesional y la categoría en la que resulta integrada la persona interesada, así como el puesto funcional asignado en la Organización de Servicios a la que queda adscrita y la fecha de efectividad de la integración.

3.– Al personal que habiendo solicitado la integración no reúna las condiciones necesarias para ello le será denegada su solicitud, manteniéndose en las mismas condiciones que aquéllos que voluntariamente optan por no integrarse.

***6. artikulua.***– Ondorioak eta integrazio-araubidea.

Estatutupeko langile gisa integratutako langileei neurri hauek aplikatuko zaizkie:

a) Integrazioaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren estatutupeko langile finko bilakatuko dira integratutako langileak, eta erakunde horren araubide juridiko eta ekonomikoaren mende geratuko dira. Dena den, ezingo dute integratu aurretik jasotzen zituzten ordainsariak baino gutxiago jaso, urte osoko zenbatekoa kontuan hartuta.

Dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera, estatutupeko bilakatzen diren langileek integratutako lanpostu funtzionalari atxikitako eskubide eta betebeharrak izango dituzte; errespetatu egingo dira beren funtsezko lan-baldintzak, eta, ondorio guztietarako, baita integrazio hori izan den egunera bitarte onartutako antzinatasuna ere.

b) Estatutupeko langile finko bilakatu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren karrerako funtzionarioa eszedentzia-egoeran aitortuko da, arlo publikoan zerbitzua emateagatik. Era beran, Osakidetzako lan-kontratudun langile finko zirenak, eszedentzia-egoeran dauden lan-kontratudun langiletzat aitortuko dira ofizioz, arlo publikoa zerbitzua emateagatik.

c) Erakunde autonomoa desagertzen den unean lanpostua jabetzan izan eta horretan lanean ari den langileak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko Ente Publikoan lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera, izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko kalifikazioa merezi badu, lanpostuaren titulartasunari eutsi egingo dio eta, bereziki, ad personam mantenduko du mugiarazteko araubidea, eta ezingo da lanpostu horretatik baztertu, Euskadiko Osasun Antolamenduaren 8/1997 Legean aurreikusitako mekanismo orokorren bidez ez bada.

d) Integrazioaren ondorioz, une horretara bitarte egiaztatutako ordainsariak baino gutxiago ateratzen zaizkienei, osagarri pertsonal bat onartuko zaie aldea berdintzeko, baina aldi baterako. Osagarri hori ekitaldi honetan edo gerokoetan izango diren edonolako ordainsari hobekuntzak hartuko du, lanpostu edo kategoria aldaketagatik eratorritakoak barne. Aldi baterako osagarri pertsonala kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko etengabeko arretan, txandetan, gauetan, jai egunetan edo ospitalizazioan lan egiteagatik jasotako kopuruak, ez eta horien antzeko beste edozer ere, eta ez antzinatasunagatik edo onartuta izan ditzaketen lanbide-garapenagatik kobratzen dituzten kopuruak ere.

e) Integratutako langileei, ondorio juridiko eta ekonomiko guztietarako, onartuta duten antzinatasuna mantenduko zaie, eskabideak aurkezteko

***Artículo 6.***– Efectos y régimen de la integración.

Al personal integrado en la condición de personal estatuario le serán de aplicación las siguientes previsiones:

a) La integración supondrá la adquisición de la condición de personal estatutario fijo del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, quedando sometido a su régimen jurídico y económico, sin que en ningún caso pueda percibir en cómputo anual unas retribuciones inferiores a las que venía percibiendo hasta el momento de la integración.

El personal que adquiera la condición de estatutario según lo previsto en este Decreto tendrá todos los derechos y obligaciones inherentes al puesto funcional en que sea integrado, respetando sus condiciones esenciales de trabajo, y a todos los efectos la antigüedad que tuviera reconocida hasta la fecha de dicha integración.

b) Adquirida la condición de personal estatutario fijo, el funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi será declarado en la situación de excedencia por prestar servicios en el sector público. Asimismo, el personal que ostentara la condición de personal laboral fijo de Osakidetza, será declarado de oficio en su condición de personal laboral en situación de excedencia por prestar servicios en el sector público.

c) El personal que en el momento de la extinción del Organismo Autónomo desempeñase en propiedad un puesto de trabajo que conforme a la aplicación del Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los Puestos Funcionales del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza-Servicio vasco de salud, mereciera su calificación como de provisión por el sistema de libre designación, mantendrá la titularidad del puesto y conservará singularmente ad personam su régimen de remoción, no pudiendo ser removido de dicho puesto salvo por los mecanismos generales previstos en la Ley 8/1997, de Ordenación Sanitaria de Euskadi.

d) A quienes, como resultado de la integración, les resultaren retribuciones inferiores a las acreditadas hasta la fecha de la misma, se les reconocerá un complemento personal y transitorio por importe de su diferencia. Dicho complemento será absorbido por cualquier mejora retributiva que se produzca en este ejercicio o posteriores, incluidas las derivadas de cambio de puesto de trabajo o categoría. Para el cálculo del complemento personal transitorio, no se tendrán en cuenta las cantidades percibidas en concepto de atención continuada, turnicidad, nocturnidad, festivos u hospitalización, así como cualquier otro equiparable, ni las cantidades que en concepto de antigüedad o de desarrollo profesional tenga reconocidas.

e) Al personal integrado se le mantendrá, a todos los efectos jurídicos y económicos, la antigüedad que tuviera reconocida, en las mismas cuantías vigentes

epea amaitzen den egunean indarrean dauden zenbatekoetan. Integrazioak ondorioak izan ondoren onartutako hirurtekoak Estatutupeko Langileen Esparru-estatutuaren 55/2003 Legeak 42. artikuluan ezarritako eran egingo dira. Dena den, hirurteko edo antzinatasun gisa sailkapen-talde bakoitzerako aurreikusitako kopuruak baino gutxiago jasotzen dituztenei, erregularizatu egingo zaizkie kopuru horiek, integratzen diren sailkapen-taldearen arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa***.– Dekretu honek arautzen duen integrazio-aukeratik baztertuta geratzen dira 1. artikuluan definitutako helburuaren barruan sartzen ez diren langile guztiak, eta zehazki, honako hauek:

a) Osatek-Euskadiko Teknologia Sanitarioa SA enpresan lanean ari diren lan-kontratudun langileak.

b) Zerbitzu-erakundeetan Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak 26.6 artikuluan aurreikusitako aldi baterako lan-kontratuarekin diharduten profesionalak.

c) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendariak, baldin eta administrazio-izendapen bidez, noizean behin estatutupeko langile finkoei gorde gabeko gerentzia edo lanbide-zuzendaritzako zereginak egiten badituzte, karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoaren lanpostua gordeta ez badute.

d) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren edozein zerbitzu-erakunderi atxikitako bitarteko funtzionarioak.

e) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren edozein zerbitzu-erakunderi txikitako lan-kontratu mugagabeko langileak, baldin eta mugagabeko izatea ebazpen judizial bidez lortu badute.

***Bigarrena***.– Funtzionarioek edo lan-kontratudun langile finkoek okupatutako lanpostuak, baldin eta lanpostu horien titularrak eskainitako integrazio-prozesuan sartzen ez badira, «desagertu beharrekotzat» aitortuko dira, aipatutako lanpostu horietan zerbitzu ematea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zerbitzu-erakundeen ezaugarrietara eta antolaketara egokitzeari kalterik egin gabe.

***Hirugarrena***.– Integrazioa hautatzen ez duten profesionalek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zerbitzu-erakundeetan lanpostuak betetzeko deitzen diren borondatezko mugikortasun prozesuetan parte har dezakete.

a la fecha que finalice el plazo de presentación de solicitudes. Los trienios que se reconozcan con posterioridad a la fecha de efectos de la integración, lo serán conforme a lo previsto en el artículo 42 de la Ley 55/2003, del Estatuto Marco del Personal Estatutario. No obstante, quienes en concepto de trienios o antigüedad percibieran cantidades inferiores a las previstas para cada grupo de clasificación se les regularizarán dichas cantidades con arreglo al grupo de clasificación en el que se integren.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera***.– Se entenderá excluido de la opción de integración que regula el presente Decreto a todo colectivo de personal del Ente Público que no se encuentre comprendido en el objeto definido en el artículo 1 y, en particular, a los siguientes:

a) Al personal laboral que desempeña sus funciones en Osatek-Tecnología Sanitaria de Euskadi, S.A.

b) A los profesionales vinculados con la Organizaciones de Servicios mediante régimen de contratación laboral temporal, contemplados en el artículo 26.6 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi.

c) Al personal directivo de Osakidetza-Servicio vasco de salud que, en virtud de nombramiento administrativo, desempeñe con carácter eventual tareas de gerencia o de dirección profesional no reservadas a personal estatutario fijo, salvo que tenga reserva de puesto como funcionario de carrera o laboral fijo en el mismo.

d) Al personal funcionario interino que se encuentre vinculado con cualquiera de las organizaciones de servicios del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

e) Al personal laboral con relación de carácter indefinida adquirida por resolución judicial que se encuentre vinculado con cualquiera de las organizaciones de servicios del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

***Segunda***.– Los puestos de trabajo ocupados por personal funcionario o laboral fijo cuyos titulares no se acojan al proceso de integración ofertado, se declararan «a extinguir», sin perjuicio de que la prestación de servicios en el citado puesto de trabajo se adapte a las características y organización de las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

***Tercera***.– Los profesionales que no opten por la integración, podrán participar en aquellos procesos de movilidad voluntaria que se convoquen para la cobertura de puestos en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko martxoaren 29an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

DISPOSICIÓN FINAL

Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de marzo de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.

El Consejero de Sanidad y Consumo,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.